

# LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EUSKAL KONTSEILUA

## 2004KO JARDUEREN MEMORIA

### Ohiko batzarrak

Ebaluazio Batzordeak 18 bilera egin ditu. Bilerok, eskabideen ugaritasun-erritmoa kontuan hartuta egin dira. Batzorde Iraunkorra behin baino ez da batzartu (abenduan).

Aurtengo berritasun nagusia, 319/19999 Dekretua garatzen duen Agindua indarrean sartzea izan da, urtarrilaren 28an EHAAan argitaratu ondoren.

Honako hauek izan dira **Ebaluazio Batzordeak** hartu dituen **erabakiak**:

2004ko otsailaren 25eko 45 zenbakidun akta

-Osasun-zientzietan espezifikoak ez diren gaiak izateagatik egiazta daitezkeen arloen artean sartzeari dagokionez zalantzak sortzen dituzten jardueren kasuan, auditoretza sistematikoak (profesionalen zerrenda eskatzea) egiteko aukera kontuan hartu da.

2004ko martxoaren 17ko 46 zenbakidun akta

-Farmazia-industriak babestutako jardueren hornitzaileei eskatzen hasiko zaien interesen arteko gatazkari buruzko adierazpenari buruzko dokumentu bat aurkeztu da.

2004ko apirilaren 1eko 47 zenbakidun akta

-Interesen arteko gatazkari buruzko dokumentuaren behin betiko idazketa onetsi da eta hemendik aurrera, farmazia-industriak guztiz edo zati batean finantzatutako jarduerak egiaztatzeko alde aurretik aurkeztu beharreko baldintza izango da.

2004ko apirilaren 21eko 48 zenbakidun akta

-Interesen arteko gatazkaren gaiarekin jarraituz, hornitzaileei eskatu ahal zaien dokumentazio osagarriari buruzko zirriborro batzuek aurkeztu dira.

-LTE (laborategiko teknikari espezialista) kolektiboak aurkeztutako eskabideen ugaritasuna eta ebaluatzaileek gai horrekiko duten ezjakintasuna dela-eta, kolektibo horrentzako jardueren ebaluazioaz aholku eman dezakeen pertsonaren batekin harremanetan jartzea erabaki da.

2004ko urriaren 13ko 56 zenbakidun akta

-Urtero entitate hornitzaile berberak antolatutako iraupen laburreko jarduera masiboez ari garenean, gaia da aldatzen den gauza bakarra eta gutxienez alde aurretik hiru bider ebaluatuak izan dira; horiek horrela, Batzordeak erabaki du egindako

ebaluazioetan lortutako batez bestekoa osagai kualitatibo gisa ezartzea.

-Hauxe da Batzordeak erabaki duena: kasu bakoitzean dagokion egiaztatzea ukatzeko arrazoa banan-banan idaztea eta lege-aholkularitzari kontsultatzea, beharrezkotzat jotzen baldin badu.

2004ko azaroaren 25eko 59 zenbakidun akta

-Ezagutzak eguneratzeko helburua urtero duten eta aurrekoa bezalako programa aurkezten duten jarduerak behin-behinean egiaztatzea erabaki da. Behin betiko egiaztatzea, edukietan aldaketen bidalketak baldintzatuko du.

### **Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiak:**

2004ko abenduaren 15eko 7 zenbakidun akta

-Batzorde Iraunkorrek, Batzordearen autonomia berresten du eta eragingarritasun, azkartasun eta malgutasun ondorioetarako eskabideen ebaluazioaren eginbehar zuzena indartzea onesten du.

-Ebaluatzaileekin feedbacka gehitzeko proposamena onetsi da.

-Batzordeari, egiaztatze edo ukatzeko erantzuna emateko epeen betetzea bermatzea gomendatu zaio.

-Estatu-mailan eragingarriak diren Kreditatzeko Batzordeetako Idazkaritza Teknikoek adostutako puntuen aplikazioa berretsi da. Horietako puntu batzuek, dagoeneko gure prozeduran zeuden, hala nola:

- a.
  - o Lanbide sanitario berriak sartzeko, Lanbide Profesionalen Antolamenduari buruzko Legearen arabera
- b.
  - o Bertaratze-kontrolaren exigentzia, egiaztatzea lortzeko baldintza gisa
- c.
  - o Ebaluazio itemaren aldaketa
- d.
  - o Inprimaki espezifikoak bertaratu gabeko eta mistoak diren jardueretarako
- e.
  - o Prestakuntza-jardueren independentzia-irizpideak

-Interesen arteko Gatazkari buruzko Adierazpena sartzeko, kongresuen egiaztapenetarako eta auditoretzak egiteko jarraitutako prozedurak onetsi dira.

-Jarduera guztietan, sarreran eta irteeran asistentzia kontrolatzen ahalegintzeko gomendioa onetsi da.

-Auditoretzen prozedura, bertaratu gabeko jarduerak egiaztatzen hasi bezain laster hastea erabaki da.

### **Jardueren egiaztapena**

2004. urtean 350 eskabide jaso dira: zehatz-mehatz erdia, 175, lehenengo edizioak izan dira (%50) eta beste erdia, 175, hurrengo edizioak (%50). 313 egiaztatu dira (%89), 21 ukatu dira (%6), 2 ez dira onartu epez kanpo aurkeztu direlako (%0,6) eta 14 (%4) hornitzaileak baztertu ditu.

HELBURUKO POPULAZIOA	AURKEZTUTAKO JARDUERAK	EGIAZTATUTAKO JARDUERAK	UKATUTAKO JARDUERAK	ONARTU GABEKO JARDUERAK	BAZTERTUTAKO JARDUERAK
MEDIKUNTZA	70	65	3		2
ERIZAINZA	143	129	8	1	5
FARMAZIA	16	14			2
MULTIDIZIPL.	91	81	6		4
ODONTOLOGIA	3	1	1		1
ALBAITARITZA	1	1			
ETE	1	1			
LTE	14	11	2	1	
PODOLOGIA	1	1			
FISIOTERAPIA	3	3			
PSIKOLOGIA	1		1		
TERAPIA OKUP.	1	1			
ERIZAINZAKO LAG.	5	5			
GUZTIRA	350	313	21	2	14

**Ukatutako egiaztapenei** dagokienez, 9 (%43) kalitatean 1a gaitu ez dutelako izan dira, 3 (%14) diziplina anitzeko jardueretarako (%80 inplikaturako lanbide guztientzako eduki orokor) exijitzen diren irizpideak ez betetzeagatik, 9 (%43) lanbide sanitarioentzat etengabeko prestakuntzat ez jotzeagatik, arrazoi desberdinak direla-eta: osasun-zientzietan espezifikoak ez diren gaiengatik (3), prestakuntza arautuagatik (2), xede-populazioarentzat bereizleak ez diren gaitzat hartzeagatik (1), laneko osasun eta autozainketagatik (2) eta profesional sanitarioei zuzenduta ez egoteagatik (1).

Eskabiderik gehien aurkeztu duen **talde profesionala**, aurreko urteetan bezala, erizaintzakoa izaten jarraitu du (%41); ondoren, medikuntzakoa dator (%20), farmazia (%4,6), bere jarduerak nabariki jaisten duena, eta laborategiko teknikarien taldea (%4), euren jarduerak aurten egiaztatzen hasi direlarik. Diziplina anitzekoek %26a osatzen dute eta beste talde batzuek ere jarduerak aurkeztu dituzte, baina ia testigantza hutsezko izaerarekin, hala nola: erizaintzako laguntzaileak (5), fisioterapia (3), odontologia (3), albaitaritza (1), ETE (1), podologia (1), psikologia (1), terapia okupazionala (1).

Aurten, lehenbiziko aldiz, bertaratu gabeko 3 jarduerak aurkeztu dira; eta horietako bik egiaztapena lortu dute. **Jarduera-motari** dagokionean, egiaztatutako jardueren %7,7a kongresuak eta jarduerak parekagarriak (iraupen laburreko masiboak) izan dira eta gainerakoa, %92,3, ikastaroak edo antzekoak (tailerrak, mintegiak). Horietako batzuk, kongresuen, jardunaldien edota batzarren barruan eman dira (%4,5).

Egiaztatutako jardueren %79,6ak 21 orduetik beherako **iraupena** izan du, %16,9ak 21 eta 40 ordu arteko iraupena, %2,9ak 41 eta 80 ordukoa eta %0,6ak 80 ordu

baino gehiago iraun du. Irakastordu-kopuruaren banaketa asimetrikoa izan da: gutxienez 1,5 ordu eta gehienez 100 ordu.

Egiaztatutako jardueren %43ak 21 eta 30 bitarteko **partaide-kopurua** du. Gainerakoa oso aldakorra da: gutxienez 6koa da eta gehienez 500koa. %35ak 21 ikasle baino gutxiago izan du, %6,7ak 31 eta 40 artean, %3,5ak 41 eta 50 artean, eta %11,5ak 50 baino gehiago.

Egiaztatutako jardueren **osagai kualitatiboari** dagokionez, jardueren %75a 1,4 eta 2,2 bitartean aurkitzen da. %17a 1,4ren azpitik dago, eta batez ere iraupen laburreko jardura masiboari dagokie. %8a 2,2tik gora aurkitzen da. Gehienez 2,5ean dago eta batez bestekoa 1,7an, iaz bezala.

Egiaztatutako jardueren %71a **arlo** klinikoari (atentzio zuzena) dagokio lanbide guztietan (%81 medikuntzan, %75 erizaintzan, %86 farmazian), baita diziplina anitzeko jardueretan ere (%60), beste urte batzuetan ez bezala. Klinikoak ez diren arloen artean (zeharkakoak), honako arlo hauetan kokatzen diren jarduerak egiaztatu dira: kudeaketa (%21,4), prestakuntza (%21,4), komunikazioa (%15,6), etika-legeria (%14,5), ebidentzian oinarritutako medikuntza (%12,4), ikerkuntza (%7,9), kalitatea (%3,4) eta estatistika (%3,4).

Aurtengo **hornitzaile**rik garrantzitsuenak Profesionalen Elkargoak izan dira, eskabideen %41arekin, horien atzetik Osakidetza %33arekin (Zerbitzu Zentralak, Ospitaleak, Ikerkuntzako Unitateak eta Irakaskuntzako Unitateak).

ENTITATE HORNITZAILEA	EGIAZTATUTAKO JARDUERA-KOPURUA
OSAKIDETZA- ZERBITZU ZENTRALAK	77
OSASUN IKASKUNTZA FUNDAZIOA	36
BIZKAIKO ERIZAINZAKO ELKARGOIA	23
GIPUZKOAKO ERIZAINZAKO ELKARGOIA	23
OSASUN SAILA	19
ARABAKO ERIZAINZAKO ELKARGOIA	11
EUSKAL HERRIKO LABORATEGIKO TEKNIKARIEN ELKARTEA	11
BIZKAIKO FARMAZIALARIEN ELKARGOIA	8
PSIKIATRIAKO VII. KONGRESU NAZIONALA	7
OSATZEN	6
GALDAKAKO OSPITALEKO INTENTSIBISTEN ELKARTEA	5
GIPUZKOAKO MEDIKUEN ELKARGOIA	5
SANTINVEST (SANTIAGO OSPITALEKO IKERKUNTZA ELKARTEA)	4
ARTERIA-HIPERTENTSIO ETA ARRISKU BASKULARRAREN SOZIJETATEA	4
GASTEIZKO ERIZAINZAKO ESKOLA	3
MEDIKER-POLIKALTE	3

ARABAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOIA	3
DONOSTIA OSPITALEA	3
GALDAKAOKO OSPITALEA	3
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO PEDIATRIAREN EUSKAL ELKARTEA	3
SANTIAGO OSPITALEA	2
GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOIA	2
ARABAKO MEDIKUEN ELKARGOIA	2
BEHARZENA (SANTIAGO OSPITALEKO INTENTSIBISTEN ELKARTEA)	2
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGOIA	2
BIOTECHNOLOGY INSTITUTE I MAS D, S.L.	2
O+IKER	2
IKASLARIN S.L.	2
GIPUZKOAKO POLIKLINIKA	2
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO IKERKUNTZAKO UNITATEA (BIZKAIA)	2
BIRIKETAKO MINBIZIAREN TALDE ESPAINIARRA	2
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	2
UMADE FORMACION	2
EUSKAL HERRIKO PEDIATRIA ELKARTEA	2
PEDIATRIAKO URGENTZIEN ESPAINIAKO SOZIJETATEA	1
LM-KO FARMAZIALARIEN ESPAINIAKO SOZIJETATEA (SEFAP)	1
GURUTZETAKO OSPITALEA	1
ZUMARRAGAKO OSPITALEA	1
DEBAGOIENENKO OSPITALEA	1
TXAGORRITXU OSPITALEA	1
BASURTUKO OSPITALEA	1
EUSKADIKO MEDIKUNTZA HEZKUNTZA ERAKUNDEA (SEMDE)	1
BIZKARREZURREKO GAIXOTASUNEN TALDE ESPAINIARRA	1
TERAPEUTA OKUPAZIONALEN ELKARTEA	1
ANESTESIAKO ERIZAINZAKO ELKARTE ESPAINIARRA	1
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	1
BILBOKO MEDIKUNTZA ZIENTZIEN AKADEMIA	1
URIBE ALDEKO GURUTZE GORRIA	1
BIOEF	1
EUSKADIKO PODOLOGOEN ELKARGOIA	1
AGURE FORO GERIATRIKOA	1
ANESTESIA ETA BIZKORKETAKO EUSKAL ELKARTEA	1
FUDEN (ERIZAINZAREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA)	1
BIHOTZ (DIAGNOSTIKO ETA ERREHABILITAZIORAKO ZENTROA)	1
ESKU MEDIKUNTZAKO ZENTROA	1
2004KO ALFA KONGRESUA	1
ANGULEMA	1
INSTITUTO ANTAE, S.L.	1

OPSE FORMACIÓN S.C.	1
ASPILA	1
GUZTIRA	311